

9. KOSTU EGITURA

Gure negozioa aurrera eramateak gastu finkoak eta aldakorrak ditu.

Gastu finkoen artean lokalaren alokairua, web-orriaren mantenua, BEZ-a eta maileguaren itzulketa daude.

Gastu aldakorren artean (ekoizten ditugun bizikleta kopuruaren arabera aldakorrak):

- Garraioa, argindarra, ura, internet eta telefonoa daude gure eguneroko jardura aurrera eramateko ezinbestekoak direnak.
- Zenbatekorik handiena langileen soldata eta gizarte segurantzari dagokie.
- Ekoizpen-gastuak, gure produktuak edo zerbitzuak sortzeko beharrezkoak diren lehengaiak, tresnak eta materialak.

GERO EGONGO DIREN HASIERAKO KOSTUAK	
Merkataritza erregistroa	100€-200€
Notarioa	300€-500€
Patentea	875€
KOSTU FINKOAK	
Alokairua	600 € inguru
Web-orriaren mantenimendua	100 €
BEZ-a	%20
Maileguen itzulketa	Hasierakoa: 5.000€ Interes-tasa: bi urteetara % 6,5 2 urtearen amaieran: %1 Bueltatu beharrekoa: 5.378,25€
KOSTU ALDAKORRAK	
Garraioa	200€
Argia, ura, gasa eta telefonoa	300€
Soldatak	1.350€
Gizarte segurantza	soldataren %35,4a
Ekoizpen-gastuak	1.550 € unitateko

Zurezko bizikleta ekologiko baten fabrikazioak hasierako inbertsio bat eskatzen du, produktuaren kalitatea eta merkatuan bideragarritasuna bermatzeko beharrezkoak diren material eta zerbitzu desberdinetan.

Bizikleta bat fabrikatzearen kostu totala 1.550 € ingurukoa dela kalkulatzen dugu. Jarraian zehazten dugu kostu horren nondik norakoa:

- Bizikletaren egiturarako erabiltzen den zura 70 € inguruko kostua.
- Zura lantzeko eta tratatzeko lana, gutxi gorabehera 50 €-ko kostua.
- Bizikleta, elektrikoa bihurtzeko motorea sartzen da, 150 €-ko kostua.
- Bateriak 180 €-ko kostua.
- Pantaila eta aginteak ere gehitu behar zaizkie, 120 €-ko kostua.
- Segurtasun eta errendimendurako, frenoak gehitzen dira 100 €-ko kostua.
- Gurpilak eta pneumatikoak 300 €-ko kostua.
- Suspentsio sistema 130 €-ko kostua.
- Iraunkortasuna bermatzeko, mantenimenduko lanek 50 €-ko kostua.
- Marketina, publizitatea, ziurtagiriak... produktua merkatuan aurkezteko 400 €-ko kostua.

BIZIKLETA FABRIKATZEAREN KOSTUA	
Zura eta bere eraldaketa	120 €
Motorea	150 €
Bateria	180 €
Pantaila eta mandoak	120 €
Frenoak	100 €
Gurpilak eta pneumatikoak	300€
Suspensioa	130€
Mantenua	50 €
Ziurtagiriak, marketina...	400 €
Totala	1.550€